

Bideak eta Arratsak

120 urte.

Lauaxeta,
mundua aldatu
nahi zuen poeta

JON KORTAZAR



Esteban Urkiaga, Lauaxeta, 1905eko abuztuaren hiruan jaio zen Laukizen. Aurton jaiotzaren 120. urteurrena da. Egia esateko, gaurko gizarterako ez da data ona omenaldiak erazteko, jende askoa oporretan baitago. Dena dela, aurton bere oroimena zabaldu da, ekitaldiak eta bere bizitzari eta lanari buruzko erakusketa maiatzera eta ekainera eramanez.

Bizitzako mugarriak

Lauaxeta 1930eko ekainaren batean agertu zen euskal kulturaren plazan. Egun horretan Errenterian ospatu zen I Olerti Egunekeo Saria irabazi zuen, garaiko poeta nagusien, Lizardiren eta Orixeren, aurretik, 'Maitale Kutuna' maitasun poemari esker. Zalantzarik gabe, sari horrek euskal gizartearen ateak zabaldu zizkion orduarte guztiz ezezaguna zen poetari.

Handik gutxira 'Euzkadi' egunkari euskaraz argitaratzen zen 'Euzkel atala' saileko zuzendari izendatu zuten, Orixeren orde, eta hori plataforma nagusia izan zuen Bizkaia osoan oso ezaguna izateko. II Olerti Egunera aurkezturiko poemaren artean aipagarrienak aukeratu zituen, epaimahai-kide balitz bezala. Sariari esker, 1931n 'Bide barriak' liburua ar-

gitaratu zuen eta horren ondoren 1935ean 'Arrats Beran', modernismo- eta herri literaturaren eraginer hurbildu zen poema bilduma. Poesiak, kazetaritzak eta ekimen politikoak eman zizkioten itzal nagusia bere bizitzari.

Poeta modernistek bezala, berak ere hizkera poetikoa aldatuz mundua aldatu nahi zuen, nazioa eraikitzeke helburuz. 'Bide barriak' liburuko azken poema 'Itxasora!' deitu zuen, eta bertan alegoria nazionala deskribatu zuen. Lurra utzi eta idealaren bila eta 'Gogai berrien' bila itsasoan bidaiatzeko gonbitea egin zion euskal

Poesiak, kazetaritzak
eta ekimen politikoak
eman zizkioten itzal
nagusia bere bizitzari

gizarteari. Lasaitasuna utzi eta lur berrien bila bidaiatzeko aldarria egin zion gizarteari. «Abertzaletasuna eta ezjakintasuna aurkakoak dira» idatzi zuen poetak parte han-

dia hartu zuen garai-ko ekimenetan. 1932an 'Euzko-erri-Jakintza' saila zabaldu zuen herri literatura biltzeko asmoz, eta horrela argitaratu zituen zenbait herri poema. 1933an Euzko Ikasle Batza, ikasleen sindikatu, sortu zuen. 1933an Euzkel Idazle Batzarra, Euskal Idazleak elkarrekin lan egiteko erakundearen burutu. 1935ean Detxepare Saria sortu nahi izan zuen urtean zehar euskaraz argitaraturiko libururik onenari emateko. 1935ean Euskal Liburuen Erakusketaren eratzaila izan zen. Eta 1936an, gerra sortzeko zen uztailan, euskarazko liburuak argita-

Sinboloa

Laukizeko poeta
euskal literaturaren
sinbolo bihurtu zen
bere fusilamenduaren
ostean. **EL CORREO**

ratuko zituen argitaletxea sortu nahi izan zuen, eta horretarako harpidetza sistema martxan ipini zuen.

Heriotza sinbolikoa

Idazleen bizitzak eta heriotzak gizartean duten eraginez idatzi duten Marijan Dovicek eta Jón Karl Helgasonek hauxe idatzi dute: «Arreta berezia eskatzen duten kategorien artean daude, zalantzarik gabe, artisten bizitzan 'santuen ezaugarrien' itxurak, hala nola gizarteak aitortzea – hau da, komunitate kultural edo nazionalaren parte izatea adieraztea – eta gizabanakoaren martirioa, sufri-mendua edo sakrifizioa komunitate horren alde denean. Badirudi artelanaren ezaugarri garrantzitsuenak nazioaren iragana kontatzean edo eraikitzean, nazioaren etorkizuna irudikatzean, errepertorioa zabaltzean eta maila (estetikoa) goratzean aurki daitezkeela».

Eta helburu biak bete zituen Lauaxetak. Bere heriotza zartada handia izan zen garaiko idazleentzako. Jada 1938an Bartzelonan zirenak omenaldia egin zioten 'Euzkadi' egunkarian. 1939an Salbatore Mitxelenak poema bat eskaini zion: «Gorputz dago gudaria», eta honela aipatu duena: «Gorputz dago gudaria / Urkiolako maldan. / Esaidazu artzai orrek / Lauaxeta ez al dan».

Lauaxetaren heriotzak sortu nahi zuen nazioaren itzala da. Gudak zapaldu zuen bere idealtasuna.

Omenaldia Artxandako jatetxean

J. KORTAZAR

Garai hartan poeta baten harreman pertsonalak estuak ziren eta ohitura zen liburu bat egite-rakoan adiskideek poetari omenaldi bat egitea.

Lauaxetak 1931n 'Bide barriak' argitaratu ostean, adiskideak Gatican bildu ziren 1932ko otsailaren 12an. Zabala izan zen deia eta zabala erantzuna. Ome-

naldian zenbait ekitaldi izan ziren. Meza, lehenik, bazkaria eta mitina, ondoren.

1935ean 'Arrats Beran', bere bigarren lana argitaratu zuenean, aldiz, adiskiderik hurkoenak bain ez ziren agertu eskaini zitzaion afarira. Afari hori Artxandako Jauregizar jatetxean egin zen, eta, neurri batean, gogoangarria da hara hurbildutakoen argazki bat gorde delako. Euzko



Lauaxeta, jesarrita, Irisarri eta Aranbalza artean. E. C.

Gaztediko adiskideek deitu zuten afaria. Argazkian zutunik ageri dira Jose Domingo Arana, Pedro Albizu, Pedro Basaldúa,

Gabino Artolozaga, Emilio Abando. Eta poetaren ondoan jesarrita, bere adiskiderik minenak: Jose Luis Irisarri, eta Ander Aran-

balza. Adiskide honi eskaini zion Lauaxetak 'Arrats Beran' liburua.

Afari hartako argazkia ez-ezik, menua ere gorde da, 'Euzkadi' egunkariak argitaraturiko berri bati esker. Hona hemen: Entremesak, arrautza eskalfatuak chantillyrekin, otarrain-menes-tra amerikar erara, Rossini tour-nedoa, pularda trufatuta, entsalada, praline izozkia, negus tarta, fruta eta Marqués de Riscal eta Montecillo ardoak.

Bada zer jan eta zer edan norbait otutzen bazaio berriro gure mahaietan «Lauaxetaren menua» berpiztea eta ernaberritzea.